

TELE-BANKA

Azkenaldian oso lasai doa dena Gipuzkoan, lasaiegi agian: manifestazio gutxi batzuk, baketsuak guztiak ere, mendi erreskateren bat... auto gidariak ere trafiko arauak errespetatzen dituzte, oro har. Poliziak ez du lan askorik izan azken hilabete hauetan.

Telefonoak jo du:

- Bai, nor da?
- Donostiako banku batetik deitzen dizut, lapurtu egin digute- esaten du larrituta emakume batek.
- Non dago bankua?
- Alde zaharrean portutik gertu, 25. portalaren ondoan.
- Ongi da, segituan egongo gara hor, lasaitu zaitetz- esaten dio poliziak emakumea lasaitu dadin.

Handik ordu erdira iritsi dira poliziak eta bankuko jabeari, ea lapurra ikusi duen galdetzen diote eta ezetz erantzuten dio. Poliziak bankua ikusmiratzen du eta kutxa gotorrean ez da dirurik geratzen eta hau jartzen du: 3-5-8-12.

Oso susmagarria da eta polizia ikertzen hasten da. Ez dute ezer lortzen zenbaki hauekin, oso nahasturik daude. Bankuaren atean Marlboro zigarro pakete bat ikusten dute eta lapurrak hori erretzen duela uste dute.

Hurrengo egunean berriz deitzen dute:

- Bai, nor da?
- Donostiako banku batetik deitzen dut lapurtu egin digute.
- Non gertatu da?
- Artzain Onaren atzealdean dagoen bankuan.
- Ongi da. Segituan joango gara.

Hortik hogei minutura agertzen da polizia. Zer gertatu den galdetu eta hau da erantzuna:

- Bat-batean jende ugari sartu da bankuan eta halako batean alarmak jo du. Guztiak, beldurtuta kanpora joan gara eta ez dugu lapurrik ikusi.

Poliziak bankua aztertzen du eta kutxa gotorrean dirurik ez da ageri baina ohartxo bat dago, hauxe jartzen du: 1-6-8-14.

Polizia harrিতuta dago eta Donostiako banku guztietan polizia patruila bana jartzen du lapurrak harrapatzeko. Honek Gipuzkoako polizia gehienak erakarri ditu kasu honetara.

Hurrengo egunean banku batean alarmak jo du. Polizia bertan da eta ez du inor irteten uzten. Lapurrak bertan egon behar du. Bertan dauden guztiak arakatzen dituzte, baina ez dute dirua aurkitzen eta probarik ez dagoenez, joaten utzi diete. Kutxa gotorrean begiratzen dute eta dirurik ez dago. Beste ohartxo bat ikusten dute: 3-6-7-13.

Polizia oso nahasturik dago ez baitute ulertzen lapurra bertan egonda dirua non zegoen. Ikertzen jarraitzen dute

zenbaki hauekin baina ez dute ordena berezirik aurkitzen. Gipuzkoa osoko poliziak bankuak zaintzen daude.

Hurrengo egunean ere banku txiki batean alarmak jo du, polizia ugari segituan kutxa gotorrera doaz eta besteak jendea arakatzen gelditzen dira. Kutxa gotorrean ez dute inor ikusten, baina beste ohartxo bat ikusten dute: 4-5-7-9. Besteengana joan dira eta ea zerbait aurkitu duten galdetzen die eta besteek ezetz erantzuten die.

Nazkatuta daude hainbeste lapurretekin, baina ezin dute etsi, lapurrak harrapatu behar dituzte. Orainsik ikertzen ari dira, baina ez dute ezer aurkitzen.

Bat-batean polizia-etxetik deitzen diote polizia nagusiari:

- Etorri denak polizia-etxera, milaka pertsona protestan da gure ateetan.
- Zer gertatu da?
- Ez dakit baina atea botako dute, azkar etorri!
- Denak zentralera, goazen denak zentralera -esaten die polizia nagusiak gainontzeko poliziei.

Bidean gertatutakoaren berri jasotzen du. Zaldibian hasi direla ematen du, baina laster egin dute gauza bera Goierri osoan, Urolan, Tolosaldean, Gipuzkoa osoan. Gipuzkoako telefono kable guztia eraman du ondo antolatutako talde batek. Telefono finkorik gabe, sakeleko telefono sareak ere laster egin du pott. Jendeak polizia-etxera bertara joan behar izan du lapurreta salatzeraz. Han jabetu dira lapurretaren tamainaz. Eta han jabetu dira poliziaren

jokabideaz: bankutako diruaz kezkatu bai, telefono kablez batere ez.

Polizia-buruak halaxe onartzen dio bere buruari: "Ederra sartu digute. Gu bankuko diruarekin, zenbaki oharrekin eta Marlboro paketeekin buru-belarri, eta muturraren aurrean 12.000 metro kable harrapatu dituzte. 5.000.000.000 € baino gehiago, bankuetan lapur zezaketen dirua baina askoz gehiago."

Beñat Ventureira
DBH 2